

CARITASEN KANPAINA

**MAITASUNAREN EGUNA:
«ZAINDU. ESKUTIK HELDU.
CULTIVA CUIDADOS»**

2023KO EKAINAREN 11

**KRISTOREN GORPUTZ ETA
ODOL GUZTIZ SANTUA (A)**

Liturgia lagungarriak

Atarikoak:

- Gogoratu ezinbestekoa dala lagungarriok alkarte bakotxaren gorabeheretara moldatzea luzera eta hizkerari dagokienez.
- Maitasunaren Eguna da eta lehen Eguen Santuz ospatzen zan Anai-arreben Maitasunaren Egunaren sena be jasoten dau.
- Ondo legoke Caritaseko boluntarioek gaurko ospakizunetan eraginkortasunez parte hartzea.
- Egun egokia da gaurkoa, eukaristia liturgia beren-beregi zaintzeko: ogi eta ardaoaren aurkezpena eta altararen behealdean itziko dan kolektarena. Holan egiten bada, diru-batzearen arrazoiak azaltzeko oharra irakurri arte ez gara dirua batzen hasiko. Eukaristia otoitza nabarmendu gorespenak kantatuz, ogia era esanguratsuan zatitu "Jaungoikoaren Bildotsa" abesten dan bitartean, jaunartzea...

SARRERAKO OHARRA

Anai-arrebok: Gaur, Kristoren Gorputz eta Odolaren eguna ospatzen dogu.

Eleizak ospatzen dauan Eukaristia geure fedearen sakramentu, itxaropenaren oinarri, hilezkortasunerako bide eta maitasunaren iturri eta eskakizun da.

CAMPAÑA DE CÁRITAS

**DÍA DE CARIDAD:
«ZAINDU. ESKUTIK HELDU.
CULTIVA CUIDADOS»**

11 DE JUNIO DE 2023

**SANTÍSIMO CUERPO Y
SANGRE DE CRISTO (A)**

Subsidios litúrgicos

Notas previas:

- Recordemos la necesidad de que estos subsidios se adapten en su extensión y lenguaje a las circunstancias de cada comunidad.
- Este es el Día de Caridad que recoge también el sentido del Día del Amor Fraternal que antes se celebraba el Jueves Santo.
- Estaría bien que el voluntariado de Cáritas participara activamente en las celebraciones de hoy.
- Hoy es un día apropiado para cuidar especialmente la liturgia eucarística: la presentación del pan y el vino y también de la colecta, que se deja a los pies del altar. Si se hace así quizá convendría no empezar a hacerla hasta que se haya leído pausadamente la monición que la motiva. Destacar la plegaria eucarística con las aclamaciones cantadas, la fracción del pan significativamente hecha mientras se canta "Cordero de Dios", la comunión...

MONICIÓN INICIAL

Hermanas y hermanos: En este domingo celebramos la solemnidad del Cuerpo y la Sangre de Cristo.

La Eucaristía que celebra la Iglesia es el sacramento de nuestra fe, fundamento de la esperanza, remedio de inmortalidad y fuente y exigencia de amor.

Horrexegaitik, gaur Karidadearen Eguna da. Caritasen kanpainak gogoratzen deuskunez, ezinbestekoa da zaintzak lantzea. Laguntza-sareak, lokarri esanguratsuak, anai-arreben alkarteak sortzeko dei egiten jaku, zuzentasun eta bakearen aldeko lanetik Jainkoaren ametsaren arabera mundua eraldatzeko. Eta guzti hau, hartu, begiratu eta entzun egiten dauan, otoitz eta ospakizunerako aukera emoten dauan, fedearen poza iragarten dauan, sendaketa dakarren, hautua egin eta bidegabekeriak salatzen dituan fededun alkartean.

Anai-arreben alkarte lez, Jainkoarekiko eta besteekiko batasunaren sakramentu dan Eukaristia ospatuko dogu. Pozez beteta, abestuz ekingo deusagu ospakizunari.

ABADEAREN AGURRA

Jauna, zerutik jatsi dan ogi bizia, zuekin.

DAMU OTOITZA

Eukaristia ospatzeko, Jesusek izan ebazan jarrerren antzekoak behar doguz. Eskatu deiogun Jainkoari gure bihotza aldatzeko.

- Aberats izanda, gugaitik behartsu egin zinana: **Erruki, Jauna.**
- Gure anai-arreba egin zinana: **Kristo, erruki.**
- Janari egin zinana gure goseak asetzeko: **Erruki, Jauna.**

OHARRA 1. IRAKURGAIARI (DT 8, 2-3. 14B-16A)

Israel herriak funtsezko esperientzia bizi izan eban: basamortuan, ur-tanta bakar bat be emoten es eban eremu oso lehorrean, Jainkoaren hitza hatx eta iturburutik ataraten dan ura eta Jaunaren opari zoragarri dan mana bezain ezinbestekoa da.

Precisamente por esto último, hoy es Día de Caridad. La Campaña de Caritas nos recuerda la necesidad de cultivar cuidados. Se nos invita a seguir creando redes de apoyo, vínculos significativos, construir comunidad de hermanos para poder seguir transformando el mundo conforme al sueño de Dios, desde el trabajo por la justicia y la construcción de la paz. Y todo esto en comunidad creyente que busca unida construir un mundo mejor, tejiendo comunidades donde se acoge, se mira y se escucha, donde se ora y se celebra, donde se anuncia la alegría de la fe, donde hay sanación, comunidades proféticas que toman partido y denuncian las injusticias.

Como comunidad fraterna celebramos en la Eucaristía, sacramento de comunión con Dios y con nuestros semejantes. Con alegría la comenzamos y cantamos unidos.

SALUDO DEL PRESIDENTE

El Señor, pan vivo que ha bajado del cielo, esté con todos vosotros

ACTO PENITENCIAL

Para celebrar la eucaristía necesitamos unas actitudes parecidas a las de Jesús. Pidamos que Dios transforme nuestro corazón.

- Tú, que, siendo rico, te hiciste pobre por nosotros: **Señor, ten piedad.**
- Tú, que te hiciste nuestro Hermano: **Cristo, ten piedad.**
- Tú, que te hiciste alimento para saciar nuestras hambres: **Señor, ten piedad.**

MONICIÓN A LA 1ª LECTURA (DT 8,2-3.14B-16A)

El pueblo de Israel vivió una experiencia fundamental: en el desierto, un sequedal sin una gota de agua, la palabra de Dios es tan necesaria como el agua que sale de la roca y el maná, ese pan maravilloso regalo del Señor.

OHARRA 2. IRAKURGAIARI (1 KO 10, 16-17)

Kristoren Gorputz eta Odolaren alkartasunak anai-arreba guztien arteko batasunaren alde lan egitera garoaz. Eukaristiako ogi eta ardoa euren burua eta bihotza handitu gura dabezan pertsona solidarioentzako elikagai dira inor, nahiz eta urrinetik etorri, kanpoan geratu ez daiten.

OHARRA EBANJELIOARI -ALELUIAREN AURRETIK- (JN 6, 51-59)

Zerutik jatsitako ogi bizi lez, behin betiko Bizia emoteko gauza dan ogi lez aurkezten dau bere burua Jesusek. Kristoren Gorputza jateak, Haregaz jaunartzeak, Haregaz erabat lotzera garoaz eta pertsonakaz bat egitera, Jainkoarenganako maitasuna eta anai-arrebenganako maitasuna estu lotuta dagoz-eta.

HOMILIARAKO IDEIAK

Entzun barri doguzan irakurgaiak Eukaristiaren hiru alderdi nagusi ulertzeko balio deuskue:

1. **Eukaristia, janaria da.** Basamortuan, Israel herria manaz elikatu eban lez, geuri be, bizitzako bide gatxean, Kristok bere Gorputz eta Odola emoten deuskuz: sendotu egiten gaituan benetako janaria da. Jainkoa jan egin geinke, ogia lez, gure bizitzak elikatu egiten ditu ogiak lez. Ogi honegaz Jainkoak ahulak sendotu egiten ditu eta bihotza indartu eta sinismena emoten deusku. Gainera, mahaikideak benetako senidetasun eta adiskidetasunezko otorduan batzen ditu. Hemen gizaki bakotxa anai-arreba lez autortu behar dogu eta danak barne hartuko dituan gizarte adiskidetasuna bilatu. Horretarako ezinbestekoa da erabakitasuna eta gaitasuna egia bihurtuko dabean bide eraginkorrak aurkitzeko. Ikuspuntu horretatik egiten dan edozein ahalegin maitasunaren gauzatzegoren bihurtzen da. Izan be, norbanakoak behartasunean dan norbaiti lagundu leikeo, baina beste batzukaz bat egiten dauanean senidetasun eta zuzentasunezko gizarte prozesuak sortzeko, aurrera egiten da gizarte maitasuna arimatzat dauan ordena sozial eta politikorantz.

MONICIÓN A LA 2ª LECTURA (1 CO 10,16-17)

La comunión en el Cuerpo y Sangre de Cristo nos lleva trabajar por la unión de los hermanos. El pan y el vino de la Eucaristía son alimento para personas solidarias que quieren agrandar su mente y su corazón para que nadie, aunque venga de lejos, se quede fuera.

MONICIÓN AL EVANGELIO -ANTES DEL ALELUIA- (JN 6,51-59)

Jesús se presenta a sí mismo como el pan vivo que ha bajado del cielo, el que es capaz de dar la Vida definitiva, la Vida al mundo. Comer el Cuerpo de Cristo, comulgar con Él, implica una total unidad a su persona y una identificación con las personas, porque siempre van unidos el amor a Dios y a los hermanos y hermanas.

IDEAS PARA LA HOMILÍA

Las lecturas que hemos proclamado nos ayudan a comprender tres aspectos muy centrales de la Eucaristía:

1º. **La Eucaristía es comida.** Como al pueblo de Israel, en el desierto, Dios le alimentó con el maná, también a nosotros, en el camino siempre difícil de la vida, Cristo nos da su Cuerpo y su Sangre: es el verdadero alimento que nos fortalece. Dios se deja comer como el pan, alimenta nuestras vidas como el pan. Con este pan Dios fortalece a los débiles y conforta el corazón y nos hace crecer. También une a los comensales en una comida de verdadera fraternidad y amistad. Aquí hemos de reconocer a cada ser humano como un hermano o una hermana y buscar una amistad social que integre a todos. Esto exige la decisión y la capacidad para encontrar los caminos eficaces que las hagan realmente posibles. Cualquier empeño en esta línea se convierte en un ejercicio supremo de la caridad. Porque un individuo puede ayudar a una persona necesitada, pero cuando se une a otras personas para generar procesos sociales de fraternidad y de justicia se avanza hacia un orden social y político cuya alma es la caridad social.

2. Eukaristiak Kristogaz lotzen gaitu. Paulok gogoratu deusku bigarren irakurgaiari: «Jainkoa bedeinkatuz hartzen dogun esker onezko kopak, ez ete gaitu Kristorekin bat egiten beronen odolean? Eta zatitzen dogun ogiak, ez ete gaitu Kristorekin bat egiten beronen gorputzean? Gaurko ebanjelioak alkartasunezko misterio honetan sartzen gaitu. Eukaristiak bizia emoten deusku, Kristorengan iraunarazoten deusku, bere bitartez, Bera Aitari lotuta bizi dan lez, geu be Hari lotuta bizi arazoten deusku. Neuregan dago eta Ni harengan: holan adierazoten dau Joanen ebanjelioak ikasleak eukaristia janariaren egile dan Maisuagaz dauan batasuna. Gizonaren Semearen haragia jaten eta haren odola edaten ez badozue, ez dozue bizirik izango zeuongan. Haregaz bat eginda, begiratzeko era, bihotzaren begiez begiratzen ikasiko dogu Jesusengandik, hau da, sakontasunez, bihozberatasunez begiratzen, aurpegi baxotxean anai-arrebaren begirada ezaguna antzeman, eskutik heldu eta zaintzeko»

3. Eukaristiak hurkoagaz be lotzen gaitu. Jainkoaren hitz bera entzun ondoren, mahai berean parte hartzeak senidetasunezko jarreran haztea ekarri behar deusku. Hori be gogoratu deusku Paulok: "Ogia bat danez, danok gorputz bat gara, ze, ogi bakarretik hartzen dogu danok". Eukaristia partaideen batasunetik mundu hobea sortu gura dauan fededun alkartean ospatzen dogu, begiratu eta entzun egiten dauan, otoitz eta ospakizunerako aukera emoten dauan, fedearen poza iragarten dauan, sendaketa dakarren, hautua egin eta bidegabekeriak salatzen dituan fededun alkartean.

JAINKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Egin deiogun otoitz Jesukristorengan egundoko maitsuna erakutsi deuskun Jainko Aita errukitsuari.

- Eleizaren eta eleiztarron alde. Itxaropen-alkarte izan gaitez, harreragile eta entzule, otoizlari eta ospatzaile, bategite eta parkamenaren alkarte, alkarte sendatzaile eta abegitsu, ahulenak aintzat hartzen dituan alkarte. Eskatu deiogun Jaunari.
- Munduko agintarien alde. Politikan, erakundeetan,... erantzukizuna dabenek zuzentasun eta alkartasun senez jokatu daien erabagiak hartzean eta guztion ona sustatu daien. Eskatu deiogun Jaunari.

2º. La Eucaristía nos une con Cristo. Nos lo ha recordado Pablo en la 2ª lectura: «El cáliz de la bendición que bendecimos, ¿no es comunión con la sangre de Cristo? Y el pan que partimos, ¿no es comunión con el cuerpo de Cristo?». El evangelio de hoy nos introduce en este misterio de comunión. La Eucaristía nos da vida, nos hace permanecer en Cristo, nos hace vivir por él como él mismo está unido al Padre. Habita en mí y yo en él: así expresa el evangelio de Juan la unidad del discípulo con el Maestro que obra el alimento eucarístico. Si no coméis la carne del Hijo del hombre y no bebéis su sangre, no tendréis vida en vosotros. Unidos a Él, aprenderemos de Jesús la forma de mirar, a mirar con los ojos del corazón, es decir, a mirar con profundidad, con sensibilidad, percibiendo en cada rostro la mirada conocida del hermano, de la hermana para tomarlos de la mano y cuidarlos.

3º. La Eucaristía nos une también con el prójimo. Participar en la misma mesa, después de haber escuchado la misma palabra de Dios, nos debe hacer crecer en la actitud de fraternidad. También esto nos lo ha recordado Pablo "el pan es uno, y así nosotros, aunque somos muchos, formamos un solo cuerpo, porque comemos todos del mismo pan". La Eucaristía la celebramos en comunidad creyente que busca unida construir un mundo mejor, tejiendo comunidades donde se acoge, se mira y se escucha, donde se ora y se celebra, donde se anuncia la alegría de la fe, donde hay sanación, comunidades proféticas que toman partido y denuncian las injusticias.

ORACIÓN UNIVERSAL

Oremos a Dios, Padre de misericordia, que nos ha manifestado su inmenso amor en Jesucristo.

- Por la Iglesia y quienes la formamos, para que seamos comunidades de esperanza donde se acoge y se escucha, donde se ora y se celebra, comunidades en las que hay encuentro y perdón, donde podemos sanar y acoger a las personas más frágiles. Roguemos al Señor.
- Por quienes tienen responsabilidades en la política, en instituciones y organizaciones, para que prevalezca en sus decisiones el espíritu de justicia y solidaridad y promuevan en todo el bien común. Roguemos al Señor.

- Caritasen alde. Bertako langile eta laguntzaileek gogoratu deiguela Jesuengandik bihotzaren begiez begiratzen ikasi behar dogula, sakontasunez, sentiberatasunez begiratzen, aurpegi bakotxean anai-arrebaren begirada ezaguna ikusiz. Eskatu deiogun Jaunari.
- Eukaristia ospatzen dihardugunon alde. Eukaristiaren doako doea ospatzen dihardugunok ahulenen aldeko konpromisoa erakutsi daigun. Eskatu deiogun Jaunari.

Entzun, Aita, gure otoitza eta Jesukristo betiereko ogi biziaren gose izan daigula beti. Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

CARITASEN ALDE DIRUA BATU AURREKO OHARRA

Zaintzak lantzen jarraitzeko deia entzun dogu, dana aldatu eta eraldatzen dauana maitasunaren indarra dala egiaztatuz. Batez be pertsoneri eta inguruari begiratzeko erak. Maitasunak begietara begiratzera garoaz. Pertsona horreen izenean, eskerrik asko emongo dozuen diru-laguntzagaitik.

JAUNARTZE ONDORENGO ISILUNEAN

Frantzisko Aita Santuaren berbaldia herri mobimenduen II. biltzarreko partaideei, Santa Cruz de la Sierra (Bolivia), 2015.eko uztailaren 9a.

«Sufritzen ari diranen aurpegietara begiratzen dogunean, "aurpegi horreek eta izen horreek" gogoratzen doguzanean, erraiak dardarka jaren jakuz hainbesteko atsekabearen aurrean eta hunkitu egiten gara, danok hunkitzen gara... Estatistika hutsa ez ezik gizadi oinazetsuaren zauriak, geure zauriak, geure haragia "ikusitako eta entzun" egin doguzalako. Hunkitu, mobidu eta bestea bilatzen dogu alkarregaz mobiduteko. Alkate ekintza bihurtutako hunkidura hori ez da bakarrik arrazoiaz ulertzen: zentzu gehigarria dau [...] bere berariazko mistika emoten dauana [...]».

- Por quienes trabajan en Caritas y colaboran con ella, para que no dejen de recordarnos que debemos aprender de Jesús la forma de mirar con los ojos del corazón, mirar con profundidad, con sensibilidad, percibiendo en cada rostro la mirada conocida del hermano, de la hermana. Roguemos al Señor.
- Por quienes estamos celebrando la eucaristía, para que el Don que en este sacramento nos es dado gratuitamente y recibimos con humildad haga que la vida de las personas nos afecte y nos conmueva la realidad, sintiendo y viendo el mundo desde el lugar, y con los ojos de cada una de ellas. Roguemos al Señor.

Escucha, Padre, nuestra oración, y haz que tengamos siempre hambre de Jesucristo, pan de vida eterna. Él, que vive y reina por los siglos de los siglos.

MONICIÓN A LA COLECTA EN FAVOR DE CÁRITAS

Sentimos la llamada a seguir cultivando cuidados, para verificar que es la fuerza del amor la que todo lo cambia y lo transforma. Especialmente nuestra forma de mirar, a las personas y a la realidad. A ambas, el amor nos invita a mirarlas a los ojos. En nombre de estas personas, gracias por vuestra generosidad en la colecta que ahora realizamos.

EN EL SILENCIO DESPUÉS DE LA COMUNIÓN

Discurso del Papa Francisco a los participantes en el II Encuentro de movimientos populares, Santa Cruz de la Sierra (Bolivia) 9 de julio de 2015

«Cuando miramos el rostro de los que sufren, [...] cuando recordamos esos "rostros y esos nombres", se nos estremecen las entrañas frente a tanto dolor y nos conmovemos, todos nos conmovemos... Porque "hemos visto y oído" no la fría estadística sino las heridas de la humanidad doliente, nuestras heridas, nuestra carne. Eso nos conmueve, nos mueve y buscamos al otro para movernos juntos. Esa emoción hecha acción comunitaria no se comprende únicamente con la razón: tiene un plus de sentido [...] que da su mística particular [...]».

ABADEAREN AGURRA (BEDEINKAPENAREN OSTEAN)

Jauna gure artean izatearen poza ospatu dogu. Ospakizunaren amaieran, erdibanatu daigun eguneroko ogia danen artean eta biztu daigun geure bizimoduagaz ingurukoen artean Kristo benetako Ogi Biziaren nahia.

Zoaze Jaunaren bakean!

DESPEDIDA DEL PRESIDENTE (DESPUÉS DE LA BENDICIÓN)

Hemos celebrado el gozo del Señor presente entre nosotros. Al concluir nuestra celebración, compartamos con todos el pan de cada día y despertemos, entre los que nos rodean y con nuestro vivir, el deseo de Cristo, Pan de la Vida verdadera.

Podéis ir en paz.



> Zaindu, eskutik heldu
Cultiva cuidados

“Lotura, alkartasuna eta senidetasuna dagoan lekuan iraungo dau biziak”

“La vida subsiste donde hay vínculo, comunión y fraternidad”

Papa Francisco (FT 87)

caritasbi.org